

Gipuzkoako Foru Aldundiko Langile Batzordearen oharra

Suhiltzaile Zerbitzua noraezean; horren zama langileen gain

Eider Mendoza, arduragabekeriari stop

Gaur goizeko 07:45etik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Suhiltzaile Zerbitzuko langileak elkartu dira Jauregi aurrean bi aldarrikapen horien alde.

Bien bitartean, Langile Batzordea Eider Mendoza diputatuarekin bildu da. Diputatuak azaldu die zein urrats eman dituen Aldundiak 20-30 plan estrategikoari jarraikiz, eta baita horien onurak ere. Langile Batzordeak, bere aldetik, onartu dio urratsak eman direla, baina langileen lan baldintzen bizkar gertatu dela hori, hau da haiengan erori dela zama; hori erakusten du gaur Aldundiaren aurrean egindako elkarretaratzean Suhiltzaile Zerbitzuko atal guztiak batera bildu izanak, lehen aldiz (Bai Esan, ofizialak, sarjentuak, kaboak eta suhiltzaileak). Langile Batzordeak adierazi dio Aldundiak Zerbitzuari buruz egiten duen egoerari buruzko diagnostikoa oso urrun dagoela langileek bizi duten benetako egoeratik. Dena den, egoerari erantzuteko bilera bat egitea adostu dute bi aldeek.

Egoera zein den argitzeko, ezin dugu ahaztu Suhiltzaile Zerbitzuan dagoen bitartekotasun tasa altua; enplegu eskaintza onartua dago, baina horretan ere agerikoak dira desadostasunak. Foru diputatuak enplegu eskaintza hori Arkautek kudea dezan nahi duen bitartean, Langile Batzordeko kideek deialdia Aldundian bertan egitea eskatzen dute. Orain, 2-3 asteko epean enplegu eskaintzaren oinarriak langileen ordezkarietara aurkezteko konpromisoa hartu dute, eta oinarri horiek negoziatzeko; zentzu horretan, diputatuak ez dio aterik itxi enplegu eskaintza prozesua Aldundian bertan egiteari. Gai horiek aztertzeke, beste bilera bat egitea ere adostu da (martxoak 23).

Donostian, 2022ko martxoaren 3an